

Vietnamgo kondaira gorria

Ez, pakerik ez da oraindik sortu. Guduaren gelditze bat lortu da. Ez da gutxi alaz ere. Vietnamiak bere gain daraman zama, beldurgarria da. Aspaldidanik jasan behar izan duena da gainera. Jen-deak egia au ahazturik daduka. Orregatik Vietnamiko guduaren historia edo kondaira txiki bat bederen egitea pentsatu dut. Kondaira au bestalde 1954 urtetik asi eta egingo dut, Ginebrako erabakietatik asirik, alegia. Kondaira onen bidez Vietnamiko arazoa obeto ulertuko dugu.

1954 URTEA:

Uztailaren 21ean, Rusia, Bretna Andia, Frantzia, Laos, Kan-Boia, Txina eta Ipar Vietnamiak erabaki batzuk artzen dituzte Ginebran. Ordura arte Vietnamia Frantziaren kolonia zen. Frantziaren aurka egin zuten borroka batipat Vietnamiarrek. 1954 urtea baino lehen vietnamiarrek amar urte pasa zeramatzuten borrokan. Beraz, arazoa aspaldidanik dator. Ginebran artutako erabakiak aukerak izan ziren: gudu bukatu, gauzak daudenean iraungo dute. Ipar Vietnamian komunistek jarraituko dute buru eta Ego Vietnamian frantsesek ezarritako Bao-Dai enperadorea izango da buruzagi. Ez Ipar aldeak eta ez Egoaldeak, aurrerantzean, inortxoren laguntzarik, arma laguntzarik, alegia, ez dute artuko. Bestalde gauzak daudenean iraungo dute 1956 uztailera arte. Izan ere il orretan Ipar eta Ego aldeak elkar arturik auteskundeak egin beharko dituzte. Auteskunde orien bidez, Vietnamia guzizko gobernu bat aukeratu zuten; Vietnamiak bat egingo zuen. Erabaki autan, gogoan izateko gauza da, Bao-Dai enperadoreak eta Ipar Amerikak ez zuten parte artu.

Urte onetan bertan, Ipar Amerikarrak eskua geroz eta gehiago sartzen asten dira. Ipar Amerikarrek lehen frantsesek laguntzen zieten, aurrerantzean, zeharka ezertan ibili gabe, zuzen zuzenean Ego Vietnamiko gobernuari lagunduko diotela agintzen dute.

Urriaren 27an, Eisenhowerek Diem lehen ministroari idazten dio osorik bere alde dagoela adieraziaz.

1955 URTEA:

Urte onetan ez da gudurik izan. Diem lehen ministroa Ego Vietnamiko buruzagi bihurtzen da. Bao-Dai, Frantziaren Cannesen bizi den enperadoreari agintaritzak kentzen dio Apirilaren 30ean. Dien militarra lehen ministro bezala Ipar Amerikarrek ezar erazi zuten. Orain diktadura gogor baten bidez jaun eta jabe egingo da. Gizon onek 1963 urte arte iraungo du.

Apirilaz gero, bestalde, Ego Vietnamian ziren beste talde politiko guzizko zigortzen eta espetxeratzten asten da Ginebrako erabakiak autsiaz.

1955 urtetik 1960 urtera arte 400.000 pertsona espetxeratu omen zituen, eta 60.000 pertsona ilerazi.

Urriak 23: Il onetan Ipar Vietnamiarrek auteskundeak egiteko aurkeztzen dituzten eskeinketei ez die Diem buruzagiak erantzuten. Postura au Ipar Amerikarren aholku edo kontseiluari jarraituz artzen du.

1956 URTEA:

Urtarrila-Otsaila: Diem katolikoa gogor erasotzen die erlijiozko beste taldeei.

Otsaila, 23: Erbesteko arazoetarako izendatua den Pineau ministro frantsesak Ipar Amerikaren jokera gaitzsten du, Frantziaren itzala ahultzen ahaleginak egin diotela Ipar Amerikari adieraziaz.

Apirilak, 28: Frantziako soldaduak etxeratzen dira. Frantziak ez du indarririk Diem buruzagiari Ginebran artu ziren erabakiak onar erazteko. Uztaila igaroko da eta Vietnamian ez da auteskunderik izango. Diemek eta bere Iparamerikar lagunek nahi zutena lortu dute.

1957 URTEA:

Urriak, 31: etsai guzizko zapaldu eta pakea sortu duela dio Diem

buruzagiak. Urte onetan ez da gudu berezirik izan.

1958 URTEA:

Gudua an eta emen asten da. Ipar Vietnamiak ez du parterik artzen borroka orietan. Ego Vietnamian bertan sortzen dira borroak. Gainera, aldi aretan Ipar Vietnamiak joko politikoa bidez gauza konpondu zitekealakoan zegoen. Ez alferrik.

1959 URTEA:

Uztailak, 8: Diem laguntzen ari ziren Ipar Amerikar teknikoak itzen dituzte. Sinbolo bezala asko esan nahi du gertaera onek.

1960 URTEA:

Apirila: Diem, sei ministro altxatzen dira, Diem gaitzetsiaz.

Iraila: Ipar Vietnamiak borroka deitzen die Vietnamiar guziei.

Arazoa: Kennedy, lehendakari autatzen dute Ipar Amerikan.

Abendua: F.N.L. erakundea osatzen da gartzelan dagoen abogadu bat buru duela.

1961 URTEA:

Maiatzak, 4: Ipar Amerikak laguntza andiagoko agintzen du.

Abendua: Kennedyk 16.000 milla teknika kontseilari bidaltzen ditu Vietnamiarra. Abiazioa, Ipar Amerikako abiazioa, asi da lanean lurak eta pertsonak kiskaltzen.

1962 URTEA:

Gudua zabaltzen da. Ipar Vietnamiarrek parte artzen asten dira gudu onetan, bere gizonak bidaliaz. Orain arte lagundu bakarrik egin zuten. Orain berak ere parte artzen du. Ipar Amerika ere asi da bere militarrek bidaltzen. Kontseilariak ez zaio aski.

1963 URTEA:

Azaroa: Diem buruzagiak agintaritzak gaitzen du. Beste militar batzuek artzen dute agintaritzak. Urte pare batean Ego aldean agintari aldaketa asko izango da. 1965 urtean Thieu jaunak artuko du eta gaur arte bera izango da agintari. Diem agintaritzatik botatzen, Ipar Amerikak berak ere parte artu zuen. Ipar Amerikarren konfiantza galduta zedukan. Ori gerora jakin da.

Azaroak, 22: Kennedy eho dute.

1964 URTEA:

Abuztuak, 5: Ipar Vietnamia bonbardeatu dute Ipar amedikarrek. Il onetan bertan Johnsonek eskubide andiagoko lortzen ditu Parlamentoak emanik. Bonbardeatze orren aitzakia Tonkinen gertatua izan zen. Itsaso bazter aietan, izan ere, Ipar Vietnamiko gudu-ontziek eraso omen zieten Ipar Ameriakako gudu ontziak. Gero jakin denez, Johnsonek dena ongi prestatuta zeukan gauza izan zen. Ipar Vietnamiarrek xaxatu zituen Tonkin aldean, gero berak bonbardeatzeko aitzakia izateko. Arrigaria gizon onen jokabidea. Munduaren aurrean oso pake zale azaltzen zen, baina azpitik gudua nola zabaltu eta indartu zebillen. Gauza auk, duela bi urte jakin ziren, ain zuzen izkutuan arkitzen ziren paper batzuk argitara eman zirenean. Ipar Amerikarren jokoa garbi ikusi zen, ikusi nahi zuena behintzat.

1965 URTEA:

Uztailak, 29: Vietnamiarra 125.000 soldadu bidaliko dirala aditzera ematen du Johnson "pake zaleak".

Urte onetan, Ipar Vietnamia bonbardeatu gabe gelditu zen egunik ez zen izan.

Urte onetan, bestalde, Thieu egiten da Ego Vietnamiko buru, oraindik berak jarraitzen du, gaur egun.

1966 URTEA:

Urte, onetan budista askok beren buruari su eman zion. Budistek, urte onetan gogor egin zuten borrokan.

Apirilak, 12: B 52 abioi igarri oriek asi dira Ipar Vietnamia bonbardeatzek. Abioi aukerak dira Ipar Amerikak dituen abioi andienak.

Ekainak, 29: Hanoi lehendabiziko aldiz bonbardeatua izaten da.

1967 URTEA:

500.000 Ipar amerikar soldadu arkitzen da Ego Vietnamian. Urte onetan borrokan gogor ari dira. Ipar Vietnamia ere buruz murgiltzen da borrokan. Urte au Ipar amerikarrentzat txarra izan zen.

1968 URTEA:

Ikaragarritzko manifestazioak mundu guzian eta batipat Ipar Amerikan. Mundua esnatu dela dirudi. Johnson ez da auteskundetara presentatuko, izan ere ez baitzuten irabaziko.

Urriak, 31: Ipar Vietnamiarren aurkako bonbardeoak aurrerantzean ez dutela jarraituko adierazten du Johnsonek.

Urte onetan bertan, Maiatzaren 10'ean Parisen elkarriketa batzuk izaten dira Ipar Vietnamia eta Ipar Amerikarren artean.

Azaroa: Nixon lehendakari autatzen dute Ipar Amerikan.

1969 URTEA:

Maiatzak, 14: 550.000 soldadu daude Vietnamian. Nixonek plan berria azaltzen du.

Ekainak, 8: Nixon eta Thieu elkar ikusten dute. Nixonek 25.000 soldadu etxeratuko dituela adierazten du.

Abuztuak, 4: Kissinger eta Ipar Vietnamiarrek elkar ikusten dute lehenengo aldiz Parisen, inork ezer asko jakin gabe.

1970 URTEA:

Urria: Ipar Amerikar soldadu guzizko etxeratzeko prest dagoela esaten du Nixonek. Urte onetan, alaz ere 400.000 ipar amerikar soldadu arkitzen dira Vietnamian.

1971 URTEA:

Apirilak, 7: Beste 100.000 soldadu etxeratzen dira. Ipar Amerikara, alegia.

Maiatzak, 31: Nixonek pake programa bat azaltzen du zortzi puntutan.

Uztailak, 1: Thieu eta Ipar Amerikarren aurka borroka ari diren izenean beste programa bat aurkesten du zazpi puntutan.

Azaroak, 12: Nixonek beste soldadu asko etxeratzen du. Bere plana aurrera dioa: gudua vietnamiarren nahiz eta abioiek gogor eraso. Etxeratzen dituen soldaduak infanterikoak dira eta ez abiazioak.

1972 URTEA:

Ipar Vietnamiak inoiz jasan duen abioi erasorik gogorrenak jasan behar izan ditu urte onetan. Alaz ere Kissinger eta Vietnamiarren artean elkar izketak jarraitzen du.

Gudua, bestalde, urte onetan izan da gogorrena, nahiz eta Ipar Amerikar soldadu gehienak etxeratutak izan. Nixon urte onetan oso pake zale azaltzen da, zinez ordea Vietnamiak jasan duen txikiziorik andina, urte onetan nabaitu du.

1973 URTEA:

Urtarrila: Guduaren geldinean. Noiz arte? Zer esan nahi du Gudua gelditze onek? Pake bide bat al da? Zer asmo ditu Nixonek? Beste galdera asko egin daiteke; gehienak erantzunik gabe geldituko dira. Geroak esango du bere itza eta ikusiko.